

Alegiako iraunkortasunerako Plan Estrategikoa

Aleginez 2025era prozesua



ALEGIAKO IRAUNKORTASUNERAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Udalerriko garapen iraunkorreko Plan Estrategikoa diseinatzeko prozesua

Plan Estrategikoaren diseinuan parte hartu duten eragileak:

- Alegiako Udala
- Alegiako elkarteak eta banakako herritarrak
- Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren idazketa-taldea
- Tolosaldea Garatzen (Tolosaldea eskualdeko garapen agentzia)
- Tolomendi (Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea)

Aholkularitza teknikoa

ELKARREKIN 21 lan-taldea (Izadi 21 eta Laia)

- Aitor Gonzalez Calvo (Geologian lizentziatua)
- Edurne Simón Urio (Zuzenbidean lizentziatua)
- Leire Garmendia Olano (Biologian lizentziatua)
- Mikel Simón Cortadi (delineatzailea eta ingurumen kudeaketa sistemetan aditua)
- Monika Rubio Monroy (diseinugile grafikoa eta komunikazio aditua)
- Naroa Susperregi Irigorri (Ingurumen Zientzietan lizentziatua)
- Rosa Aurkía Zapiain (Zientzia Kimikotan lizentziatua)
- Zuberoa Jauregi Larrañaga (Biologian lizentziatua)




αυρκιβιδεα

1. SARRERA	7
2. ALEGIAKO IRAUNKORTASUNERAKO PLAN ESTRATEGIKOA	11
3. PLAN ESTRATEGIKOAREN KUDEAKETARAKO JARRAIPEN PLANA	29
4. Eranskina I: 2015eko martxoaren 11ko herri-batzarraren akta.....	89

1. SARRERA

1. EAeko Tokiko Agenda 21en ezarpen, kudeaketa eta jarraipen eredu

EAEn Tokiko Agenda 21eko prozesuak gauzatzeko garaian, hurrengo irudian adierazita dauden lan faseei jarraitzen zaie: **Martxan jartzea**, **Diseinua** (diagnostikoa eta plangintza barne), eta **Ezarpena eta jarraipena**. Azkeneko fasea aurreratuta dagoenean, **Berrikuspena** egin behar da, Diagnostikoa eguneratzeko eta Ekintza Plana berritu edo hala badagokio, hurrengo epealdirako ekintza plan berria diseinatzeko.



Tokiko Agenda 21en prozesuen eskema

Iturria: Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21en Ekintza Planen urteko programaziorako eta ebaluaziorako gida metodologikoa. IHOBE

Fase bakoitzaren ezarpena errazteko, Udalsarea 21ek (Eusko Jaurlaritzaren menpeko IHOBE sozietate publikoaren koordinaziopean), Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sareak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Udalsarea 21en kide diren udalerrri guztientzat komunak diren metodologiak definitzen ditu. Era horretan, udal eta mankomunitate edo eskualdeko garapen agentziek sarean lan egingo dutela bermatzen da, eta era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan gauzaten diren Agenda 21en prozesuen homogeneotasuna lortzen da.

Funtsean, euskal udalerrietako Tokiko Agenda 21en Ekintza Planak modu eraginkorrean ezar daitezzen sustatzea dute helburu bai Eusko Jaurlaritzak nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta horretarako, udalerriei eta eskualdeko garapen agentziei edo mankomunitateei laguntzeko zerbitzu ugari eskaintzen dizkie; hala nola, Ekintza Planen urteroko ebaluazioa eta programazioa gauzatzeko euskarriak, tokiko iraunkortasun adierazleen kalkulurako laguntza-programa, ekintza planen proiektu zehatzak aurrera eramaten laguntzeko diru-laguntza ezberdinak, EAE mailan partekatutako proiektuei buruzko lan-taldeak (*Auzolan 21, Ekitalde, 21, ...*), eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak Berrikusteko Gidaliburu Metodologikoa (dokumentu hau gidaliburu horretan oinarritu da).

2. Alegiako Agenda 21en prozesuaren aurrekariak eta testuingurua

Iraunkortasun Diagnostiko hau Alegiako garapen iraunkorraren aldeko I. Ekintza Plana edo Plan Estrategikoa izango dena idazteko oinarrizko dokumentua dugu. Izan ere, Alegiako Udalak ez du Agenda 21en tokiko ekintza planik.

Udalak 2014 urtean ekin zion Agenda 21en metodologiaren araberako iraunkortasun prozesuari. Hori horrela, lehen pausoa lan-metodologia finkatu eta udalerriko diagnostikoa idaztea izan zen. Diagnostikoaren eta bere laburpen exekutiboaren idazketa 2014 urtean zehar gauzatu zen. Ondoren, 2015eko 1. hiruhilekoan, elkarte eta bestelako udal nahiz eskualde mailako eragileei egindako elkarrizketei esker, diagnostikoaren osaketa lanak amaitu ziren.

3. Prozesuaren faseak eta emaitzak

3.1. Lan programa

Alegiako iraunkortasunerako Plan Estrategikoa diseinatzeko prozesua honako faseetan burutu da:

- I. Fasea: prestaketa fasea eta proiektuaren abiaraztea
- II. Fasea: iraunkortasun diagnostikoaren idazketa eta berrikuspena
- III. Fasea: Alegiako garapen iraunkorraren aldeko Plan Estrategikoaren diseinua
- IV. Fasea: Plan Estrategikoaren jarraipen planaren idazketa

Prozesuan zehar komunikazio eta partaidetza jarduera ezberdinak burutu dira, Alegiako garapen iraunkorraren aldeko Ekintza-planaren edukia ahalik eta gardenena eta aberatsena izateko. Horretarako, izaera ezberdineko eginkizunak gauzatu ditugu:

- ✓ **Eginkizun teknikoak:** aholkularitza taldeak egindako lana, diagnostikoaren ondorio nagusiak eta antzemandako lehentasunezko jarduera eremuak oinarritzat hartuz.
- ✓ **Herritarren partaidetza:** batetik, 2015eko urtarrila eta martxoa bitartean herriko elkarteei eta hainbat eragileari egindako banakako elkarrizketak, eta bestetik, otsaila eta martxoan zehar antolatutako herri-batzarrak.

3.2. Sortutako dokumentuen zerrenda

Aurreko atalean deskribatu diren pausoei esker, prozesua erabat amaituta, ondorengo dokumentuak idatzi dira:

- Alegiako **iraunkortasun diagnostikoa:** udalerriko iraunkortasunarekin zerikusia duten arlo guztiak deskribatzen dituen diagnostiko sintetikoa eta bere bertsio exekutiboa (diagnostikoaren laburpena)
- Alegiako garapen iraunkorraren aldeko **Plan Estrategikoa**
- Plan Estrategikoaren edukia garatu eta urtero kudeatzeko tresnak eskaintzen dituen **Jarraipen Plana**

Eskuartean dugun dokumentuan **Alegiako Iraunkortasunerako Plan Estrategikoa nahiz Jarraipen Plana** barneratzen dira, udalerriko Agenda 21en diseinu fasearekin lotura duena. Lehen aipatu den eran, Ekintza-plan hau diseinatzeko, aholkularitza-taldeak egindako lanaz gain, udalerriko elkarte eta bestelako eragileek eta Alegiako Udaleko zein eskualde mailako erakunde publikoetako teknikariek egindako ekarpenak ere aintzat hartuak izan dira. Prozesu osoan zehar **eragile ezberdinek egindako ekarpenak honela bideratu dira:**

- Udaleko teknikariei eta udal-taldeko kideei, nahiz udal eskumenak garatzen dituzten erakundeetako teknikariei bidalitako galdetegiak
- Alegiako Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren hasierako fasean herritarrek, 2013 eta 2014 urteetan, bide ezberdinak erabiliz, egindako ekarpenak (Alegiako Diagnostiko Subjektiboa, etab.)

-

- Udalerriko elkarte eta bestelako eragileei 2015eko 1. hiruhilekoan egindako elkarrizketak (Iturritzahar guraso elkarte, Aralarpean guraso elkarte, Beloztegi Baratzak, Bertso Abesbatza, Gaztetxea, Intxurre K.K.E, Alegiako Jubilatuen Elkarte, Merkatarien Elkarte, Sutarri Dantza Taldea)
- 2015eko otsailaren 19an eta martxoaren 11n antolatutako herri-batzarrak



2. Alegiako iraunkortasuneko Plan Estrategikoa




1. Plan Estrategikoaren ezaugarri orokorrak

EAEko Tokiko Agenda 21en ekintza-plan gehienek (udalerrietako iraunkortasunaren alde lan egiteko plan estrategikoak dira) ikuspegi bat ezarrita dute, maila ezberdinetako helburuak definituta dituzte (ildo estrategikoak, jarduera programak eta xedeak) eta helburuak lortzen lagunduko duten ekintza sorta bat aurreikusten dute. Alegiaren kasuan, prozesuan zehar ez da xederik definitu (Plan Estrategikoa erabat garatzerakoan lortu nahiko liratekeen helburu kuantitatiboak -adierazleen bidez neur daitezkeenak-).



Ondorengo eskeman Alegiako iraunkortasunerako Plan Estrategikoaren oinarrizko eskema irudikatzen da:



Tokiko Agenda 21en ekintza-planen oinarrizko egitura, Alegiako Plan Estrategikoaren ezaugarrietara egokituta Iturria: Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21en Ekintza Planen urteko programaziorako eta ebaluaziorako gida metodologikoa. IHOBE

2015eko irailaren 14an Alegiako udalbatzak Alegiako Iraunkortasunerako Plan Estrategikoa onartu zuen (Agenda 21en I. Ekintza Plana). Planak **2025era begirako ikuspegia** ezarrita du (***bere inguruneari lotutako Alegia, ekonomikoki dinamikoa, euskalduna eta bizia, elkarbizitza ziurtatzen duena***). 2025era begirako ikuspegi hori lortzeko, **10 lerro estrategiko, 36 jarduera programa eta 142 ekintza** jaso dira dokumentuan.

2. Plan Estrategikoaren oinarrizko eskema

LE1	IRAUNKORTASUN IRIZPIDEETAN ETA ESPAZIOAREN HOBEKUNTZAN OINARRITUTAKO HIRIGUNEAREN ANTOLAMENDU ETA PLANGINTZA SUSTATZEA
P1.1	Hiri eta natura inguruneen plangintza iraunkortasun irizpideak erabiliz garatzea
E1.1.1	HAPOren onarpenerako prozesuan lurzoru hiritarrezinaren eremu-banaketa ondo definitzeko pausoak eman
E1.1.2	Udalerrian aisialdirako pasealeku eta zonalde berdeen sarea sortzea
E1.1.3	Herriko auzoen arteko oreka bilatzea, auzo ezberdinetan herritarrak zerbitzu eta ekipamendu ezberdinak eskura izateko
E1.1.4	Eraikuntza eta urbanizazio berrien ordenantza garatu iraunkortasun irizpideak barneratuz
E1.1.5	Jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoruen antolaketa optimizatu, eremu horietako jarduerak modu ordenatuan finkatu eta eremuen kalitatea bermatzeko
E1.1.6	Erabilera definiturik ez duten lurzoruei jarduera egokia emateko baliabideak finkatu
P1.2	Hirigunearen kalitatea hobetzeko hirigintza eraberritzea zein lurzorua berrantolatzea eta berrerabiltzea
E.1.2.1	Eraikita baina hutsik dagoen etxebizitza-parkea berriz ere erabiltzeko baliabideak aztertu eta beharrezko neurriak martxan jarri
E1.2.2	Aurri egoeran dauden etxebizitzetarako irtenbideak bilatu
E1.2.3	Zaharturiko etxebizitzetan birgaitzea eta berritzea aurrera eramateko neurriak aztertu eta ezartzeko pausoak eman
E1.2.4	Udalerriko ondare arkitektonikoa kontserbatzeko legezko tresnak aplikatu eta beharrezko neurriak martxan jarri
E1.2.5	Alegiako Hirigune Historikoa birgaitzeko plan berezia berreskuratu eta berau ezartzeko baliabideak bilatu

P1.3	Informazioa, sensibilizazioa eta herritarren parte-hartzea bermatzea lurralde antolamenduaren plangintzan
E1.3.1	Hiri-plangintza orokorrean zein eremu publikoen urbanizazio-proiektu ezberdinetan herritarrek parte hartzeko prozedura zehaztu eta hauen parte-hartzea bermatzea
E1.3.2	Ekipamendu izatera zuzendutako eraikin publikoen proiektuetan herritarrek parte hartzeko prozedura zehaztu eta hauen partaidetza bermatzea
E1.3.3	Hiri-plangintza orokorrean zein eremu publikoen urbanizazio-proiektu ezberdinetan herritarrek parte hartzeko prozedura zehaztu eta hauen parte-hartzea bermatzea

LE2	ALEGIAKO NATURA-ONDAREA, PAISAIA ETA BIOANIZTASUNA HOBETU ETA KONTSERBATZEA ETA LANDA LURRA ZEIN NATUR EREMUA INDARTZEA
P2.1	Paisaia edota bioaniztasunaren ikuspuntutik interesa duten eremuak kontserbatu eta lehengoratzea
E.2.1.1	Alegiako eta hiri inguruko paisaiaren identitate elementuak mantentzea eta haien kalitatea hobetzea
E2.1.2	Alegiako lotura ekologikoko eremuak antzeman (korridore ekologikoen tokiko sarea) eta horiek babesteko neurriak finkatu, HAPOn diseinu prozesuan aintzat hartuz
E2.1.3	Alegiako interes bereziko landaredia, herriko ur-ekosistemak eta, batez ere, erriberetakoak, egoera onean mantendu eta babesteko aukerak aztertzea
E2.1.4	Interesgarriak diren espezieak edo mehatxupean dagoen fauna zaintzea.
E2.1.5	92/43/CEE Habitat Zuzentarauan jasotako eta udalerrian aurkitzen diren habitaten babes eraginkorraren aldeko neurriak eta proiektuak ezartzea
E2.1.6	Udalerriko natura ingurunean eta pasaia-elementuetan inpaktuak sor ditzaketen jardueren edo proiektuen gaineko kontrola aurrera eraman
E2.1.7	Espezie exotiko inbaditzaileen erradikazio lanekin aurrera jarraitzea
P2.2	Landa-lurra babestu eta indartzea
E2.2.1	Alegiako nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretan ingurumeneko jardunbide egokien praktikak sustatzea
E2.2.2	Nekazaritzarako balio handiko lurak identifikatu eta babesteko neurriak hartzea
E2.2.3	Lehen sektorean erreleboa bermatzeko lurak eskuragarri jarri eta bertan nekazaritza ekologikoari lotutako lanpostu berriak sortzeko proiektua idatzi eta gauzatu
P2.3	Natura ingurunea irizpide iraunkorrekin hobetzea eta garatzea
E2.3.1	Alegiako Onura Publikoko Aldabatziki mendiaren berreskurapena sustatu, diseinatzen ari den kudeaketa-planean jasotako neurriak aurrera eramanez
E2.3.2	Ehiza eta arrantza-jarduerak ingurune fisikoan sor ditzakeen inpaktuak aintzat hartu eta horiek erregulatzea bultzatzea

E2.3.3	Alegiako natura-ondarea baloratu, ezagutu eta naturaz gozatzeko azpiegitura zabal baina ordenatu bat eskaini, herri-eremu ezberdinak lotzeko ere balio duena (Marea, Albiztur aldea, etab.)
E2.3.4	Herri-basoak mantendu, biodibertsitatearen kontserbazioa lehenetsiz, herriari onura ezberdinak dakarzkion alegitarren ondare moduan
P2.4	Paisaia, bioaniztasuna eta natura ingurunea hobetu eta kontserbatzeko sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea bultzatu
E2.4.1	Udalerriko natura eta paisaiaren balioak ezagutaraztea, besteak beste, ingurumen-heziketaren bidez.
E2.4.2	Baratza ekologikoen programa didaktiko bat diseinatzea eta garatzea, besteak beste, baratzetako jabeei formazioa emanez

LE3	MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA ETA GARRAIO PUBLIKOA INDARTZEA
P3.1	Motordun garraiorako azpiegiturak hobetzea
E3.1.1	HAPOn mugikortasunaren arloan jasotzen diren aurreikuspenak onartu aurretik, iraunkortasun irizpideen arabera baloratzea
E3.1.2	Udalerriko errepideen eta landa-bideen mantenu egokia egitea
E3.1.3	Herriarteko errepideen mantenu eta segurtasun-baldintza egokien gaineko interesa agertu eta jarraipena egitea
P3.2	Garraio publikoa eta intermodalitatea hobetzea, indartzea eta sustatzea
E3.2.1	Eskualdeko garraio publikoko zerbitzuen gaineko informazioa herritarren eskura jarri eta eskaintza hobetze jarraitzeko moduak aztertzea.
E2.2.3	Eskualdetik kanporako bidaietan garraio publikoaren erabilpena sustatzea
E3.2.4	Orain arteko bideari jarraituz, Trenbide Sare Berriaren trazaduraren gaineko jarraipena egin eta eskumena duten erakundeekin hartu-emana indartzea
P3.3	Guztiantzako irisgarritasuna eta motorrik gabeko garraio-moduak sustatzea
E3.3.1	Oinezkoentzako nahiz bizikleta-erabiltzaileentzako herriarteko azpiegiturak zaindu eta horien eraikuntzarekin jarraitu, behar den eremuetan
E3.3.2	Alegian, modu seguruan, oinez ibiltzeko beharrezkoak diren hobekuntzak gauzatzea (Irisgarritasun plana)
E3.3.3	Herritik irteteko aukera edo irtenbide seguruak aztertzea
E3.3.4	Alegiara sartzeko bide edo bidezidorrak egoera onean mantentzea
E3.3.5	“Tolosaldeko bizikletaren mugikortasun-plana” dokumentuan Alegiarako jasotako proposamenak aztertu eta horiek aurrera eramateko pausoak ematea
P3.4	Motordun ibilgailu pribatuaren zentzuzko erabilera bultzatzea
E3.4.1	Herri-gunean motorizatutako ibilgailuen trafikoa baretzeko edo ekiditeko dauden aukera ezberdinen azterketa egitea
E3.4.2	Herri-gunetik gertu, disuasio-aparkalekuak eraikitzea

P3.5	Mugikortasun iraunkorraren aldeko informazioa, sentsibilizazioa eta herritarren kontzientziak sustatzea
E3.5.1	Alegiako istripu-tasa jaisteko, sektore ezberdinetara zuzendutako hezkuntza eta sentsibilizazio-jarduerak martxan jarri
E3.5.2	Eskualdean Mugikortasunari lotutako foroetan parte hartzeko pausoak ematea eta udalerririk ezberdinetako udal-ordezkari ezberdinek egiten dituzten proposamenen jarraipena egitea
E3.5.3	Alegian nahiz eskualde mailan antolatu izan diren mugikortasun iraunkorreko sentsibilizazio-ekintzei jarraipena ematea

LE4	UR KONTSUMOA MURRIZTEA, UR-HORNIKUNTZAREN KUDEAKETA HOBETZEA ETA HONDAKIN-UREN SANEAMENDURAKO SAREA OSATZEA
P4.1	Kontabilizatu gabeko ura kontrolatzea eta murriztea (isuriak, legez kanpo hartutako urak, erabilera publikokoak, ...)
E4.1.1	Zenbatu gabeko kontsumoak identifikatu eta kontrolatu eta galerak murriztu
E4.1.2	Ur hornikuntzaren sareak hobetzea eta eraberritzea hoditeriaren zaharberitzearekin
P4.2	Ur-kontsumoa murriztea eta modu eraginkorrean erabiltzea
E4.2.1	Udal ekipamenduetako kontsumoa kontrolatzea, jarraipena egitea eta optimizatzea
E4.2.2	Kaleko iturrietako fugak eta emari iraunkorrak kontrolatzea eta ahal denetan emaria erregulatzeko neurriak hartzea
E4.2.3	Kale garbiketarako zein lorezaintzarako uraren zentzuzko erabilera bat egiteko irizpideak barneratu kontratazio pleguetan
E4.2.4	Edateko uraren tarifa egokitzea, aurrezpena sustatzeko.
E4.2.5	Mendiko iturri edo ur jauziak identifikatzea
P4.3	Hondakin-uren saneamendua bermatzea
E4.3.1	Ur beltzen eta euri uren saneamendu sareak eguneratzea:
E4.3.2	Baserrietako fosa septikoen erabilera egokia bermatzeko, lizentzietan prozedura egokia zehaztu eta gauzatzea

LE5	KONTSUMO ARDURATSUA BULTZATZEA, NATURA-BALIABIDEEN ERABILPEN ETA KUDEAKETA ERAGINKOR ETA ARRAZIONALA BURUTUZ
P5.1	Hiri-hondakinen prebentzioa sustatzea eta murrizpen neurriak ezartzea
E5.1.1	Auzo-konposterako gune berriak ezartzea, baratzetakoaz gainera, herritar gehiagori ekimenean parte hartzeko aukera eskainiz
E5.1.2	Merkatariek plastikozko zein paperezko poltsak dohain banatu ez ditzaten kanpaina zehaztu eta gauzatzea
E5.1.3	Arrandegi eta harategietako erosketak egiteko ontzi berrerabilgarrien banaketa kanpaina egitea.
P5.2	Hondakinen gaikako bilketa areagotzea
E5.2.1	Eraikuntza hondakinen kudeaketa modu egokian egiten dela bermatu
E5.2.2	Etxeko hondakinen atez ateko gaikako bilketan sortzen diren behar berriei erantzutea eta sistema optimizatzea
E5.2.3	Merkatariek gaikako bilketan dituzten beharrak aztertzea eta ondorioz, bilketa egokitzea
P5.3	Hondakinen kudeaketa hobetzen laguntzeko neurriak ezartzea
E5.3.1	Hondakinen (eta uren) tasak sektoreka berrikustea (merkataritza eta industrialdea)
E5.3.2	Industria sektoreak sortutako hondakinen bilketa datuak eskuratzea, jarraipen zehatzagoa eginez.
P5.4	Energia kontsumo arrazionala eta eraginkorra bermatzen lagunduko duten neurriak ezartzea
E5.4.1	Udal-jarduerei lotutako kontsumoen informazioa, kudeaketa eta kontrolerako sistemak ezartzea
E5.4.2	Udal-instalazio eta ekipamenduetan eraginkortasuna handitu eta optimizatzeko neurriak zehaztuko dituen plana idaztea
E5.4.3	Argiztapen publikoaren auditoretza aztertu eta eguneratzea, zehazten diren energia kontsumoa murrizten eta eraginkortasuna handitzeko neurriekin jarraituz
P5.5	Energia berriztagarriak sustatu eta hauen kontsumoa areagotzea
E5.5.1	Energia berriztagarriak sustatzea: biomasa, eguzki plakak, geotermia,...
E5.5.2	Herriko presetan zentral minihidraulikoak jartzeko aukera aztertzea

P5.6	Natura baliabideen erabilpen eta kudeaketa eraginkor eta arrazionalaren aldeko informazioa, sentsibilizazioa eta herritarren kontzientziaketa sustatzea
E5.6.1	Uraren kontsumoa murrizteko kanpaina burutu
E5.6.2	Gaika bildutako hondakinekin egiten denaren berri azaltzeko herritarrei zuzendutako kanpaina
E5.6.3	Garbigunea zer eta zertarako den herritarren artean zabaltzea
E5.6.4	Natur ingurunea eta ibilbideak, eta udalerriko kale eta plazak zaborrez ez betetzeko kanpaina martxan jartzea

LE6	INGURUMEN-KALITATEA HOBETU ETA GERTA DAITEZKEEN ARRISKUAK MURRIZTEA
P6.1	Airearen kalitate egokia mantendu eta bermatzea
E6.1.1	Airearen kalitate-emaitzen berri ematea, bai udal-langileei, baita herritarrei ere, horretarako, udal web orria komunikazio-baliabide gisa erabiliz
E6.1.2	Klima-aldaketan eragiten duten gasen isurpenak kontrolatzeko, urtero hauen isurpenen kalkulua egiteko datu-bilketa sistematizatu eta burutzea
P6.2	Udalerriko kutsadura akustikoa murriztea
E6.2.1	Alegiako zarata-mapa osatu eta hobekuntza-neurriak jasoko dituen plana diseinatzea
E6.2.2	N-1 errepideko zarata gutxitzeko pantaila batzuk jartzea, herria inguratuz
E6.2.3	Herriko jarduerak, publiko zein pribatuak erregulatuko dituen zarata ordenantza idaztea
P6.3	Jarduera ekonomikoek sortu ditzaketen arriskuak murriztea eta ingurumen hobekuntzarako urratsak eman ditzaten sustatzea
E6.3.1	Jarduera-lizentzia eskuratu dutenen eta ez dutenen jardueren udal-erregistroa sortzea, beraien kudeaketa errazteko
E6.3.2	Industri jarduerak udal lizentziak izapidetu ditzaten laguntza eskaintzea
E6.3.3	Tokiko enpresen artean ingurumen-kudeaketarako sistemen ezarpena sustatzeko jardunaldiak eta formazioa eskaintzea
E6.3.4	Enpresen eraginez sumatzen diren usainak ekiditeko neurriak hartu
P6.4	Udal esparruko jardueretan arriskuak murriztea eta ingurumen-kalitatea hobetzea
E6.4.1	Larrialdi edo Babes Zibilerako Plana eguneratzea
E6.4.2	Udal zerbitzuetan Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearekin bat datozen irizpideak sartzen joateko estrategia edo programa zehatz bat ezartzea
E6.4.3.	Eraikuntza publikoetan WIFI frekuentziak izan dezakeen eragina aztertu

LE 7	HERRITARREN PARTEHARTZE NAHIZ SENTSIBILIZAZIOA SUSTATZEA ETA UDAL INFORMAZIOAREN ESKURAGARRITASUNA HOBETZEA
P7.1	Informazioaren eskuragarritasuna hobetzea
E7.1.1	Udal web gunean hobekuntzak egitea
E7.1.2	Herritarren helbide elektronikoak eskatzeko eta udalaren sare sozialetara alegiar gehiago lotzeko kanpainak egitea
E7.1.3	Udalaren herritarrenganako hurbiltasuna areagotzeko bide berriak aztertzea
E7.1.4	Herritarra informatu eta sentikortzeko informazio teknologiak erabiltzen jarraitzea, hauek eguneratu eta berriztatuz.
E7.1.5	Udal kudeaketan gardentasuna bermatzeko neurriak hartzea
E7.1.6	Herritarren izapide gehienei modu eraginkorragoan erantzungo dien arreta zerbitzuaren sistema osoa birdiseinatzea
E7.1.7	Alegiako Aldizkaria eta Alegiako Orria komunikazio-euskarriei sostengua ematen jarraitzea
E7.1.8	Herritarrei web guneko atal ezberdinak nola erabili daitezkeen komunikatu.
P7.2	Herritarren partaidetza eta sentsibilizazioa sustatzea
E7.2.1	Alegiako iraunkortasunerako I. Plan Estrategikoa onartutakoan, dokumentuaren jarraipena egin eta herritarrek ekarpenak egiteko aukera izan dezaten, parte-hartze organo egonkor bat abian jartzea
E7.2.2	Parte-hartze modu edo gune berriak bultzatzen jarraitzea eta prozesu ezberdinetan parte hartzen duten eragileenganako harremana zaintzea
E7.2.3	Elkarte sarea sustatu eta sendotzeko ekimenak bideratzea eta hauei sostengua ematea
E7.2.4	Herriko eskolek Eskolako Agenda 21 izeneko hezkuntza programan parte hartzen jarrai dezaten, sostengua ematen jarraitzea eta sortutako partaidetza moduak indartzea.
E7.2.5	Eskualdeko erakunde eta elkarte publikoek Alegiako garapen iraunkorrean eragin dezaketen ekimen, proiektu, programa eta sentsibilizazio kanpainen gaineko interesa agertzea
E7.2.6	Alegian eragin dezaketen eskualde mailako ekintzetan (planak, programak, etab.) herritarren parte-hartzea sustatzeko bideak irekitzea eta dauden mekanismoak mantendu edo indartzea.
E7.2.7	Auzolana indartzea eta horretarako baliabideak jartzea

P7.3	Barne-koordinazioa hobetzea
E7.3.1	Udaleko langile teknikoak eta politikoak Plan Estrategikoaren ezarpenean eta urteroko kudeaketan parte hartzea sustatzeko bideak ezartzea
E7.3.2	Plan Estrategikoaren urteroko kudeaketa eta jarraipena egin ahal izateko tresnak eta prozedura definitzea, eta horiek ezartzea.
E7.3.3	Iraunkortasunaren arloko jardunbide egokiak udal langile teknikoen artean zabaltzeko prestakuntza saioak bultzatzea.

LE8	ONGIZATEA HOBETZEA, GIZARATERATZEA LAGUNTZEA ETA BERDINTASUN BALIOETAN HEZTEA
P8.1	Osasun eta ongizate zerbitzurako ekipamendu orokorrak hornitzea eta herritarren arreta-zerbitzua hobetzea
E8.1.1	Gizarte-laguntza eta programak indartzea
E8.1.2	Gizarte-laguntzen berrikuspen bat egin eta horien gaineko kontrola gauzatzea
E8.1.3	Herritarrei gizarte-laguntzen inguruko informazio egokia eskaintzea eta tramitazioa erraztea
E8.1.4	Tolosaldeko gizarte-zerbitzuekin elkarlana eta koordinazioa bultzatzea
E8.1.5	Osasun zerbitzua indartzea eta kalitatea hobetzea
E8.1.6	Osasun etxearen kokapen berri bat baloratzea
E8.1.7	Eguneko zentro edo/eta zaharren egoitza baten egokiera aztertu
P8.2	Behar duten herritarrak gizarteratzea eta berdintasuna bermatzea
E8.2.1	Elkarbizitzarako formula alternatiboak eskaintzea aztertu
E8.2.2	Etorkinak gizarteratzeko modu berriak aztertu eta ezartzea
E8.2.3	Berdintasunean hezteko kanpainak burutzea
P8.3	Etxebizitza eskubidea bermatzea
E8.5.1	Etxebizitzak zaharberritzeko laguntza programak ezartzea
E8.5.2	Alokairurako BOE etxebizitzak eraikitzeke ekimenak sustatzea
E8.5.3	Etxebizitza hutsak merkaturatzea, zerga hobariak ezarriz (BIZIGUNE programa)
E8.5.4	Hutsik dauden lokal komertzialak etxebizitza bihurtzea sustatu

LE9	EKONOMIA ANITZA ETA IRAUNKORRA ZEIN ENPLEGUAREN SUSTAPENA
P9.1	Lanean txertatzearen eta lanbide prestakuntzaren sustapena
E9.1.1	Langabezian dauden pertsonen artean eta herriko enpresen artean enplegua sortzeko aukera ezberdinak osatu, lagundu eta bultzatzeko neurriak hartzea.
E9.1.2	Neurri eta ekimen zehatzak bultzatzea krisiak eragindako gizarte-bazterketa saihesteko
P9.2	Ekonomi garapenaren sustapena eta egoera txarrean dauden sektoreen berreskurapena
E9.2.1	Ekimen esparru berriak sortu eta ekoizpen jarduera zehatzak sortzeko partaidetza foroak antolatzea.
E9.2.2	Herriko merkataritza indarberritzea, enpresa ezberdinekin partaidetza esparruak sortzea.
E9.2.3	Jarduera turistikoa bultzatzeko ekimenak garatzeko zerbitzu sektoreko enpresen arteko sinergiak bilatzea.
E9.2.4	Alegiako landa-lurrari lotutako jarduera ekonomikoak bultzatzen jarraitu, Tolomendirekin elkarlanean
E9.2.5	Enpresak herrian kokatzeko laguntzak edo ekimenak martxan jartzea
E9.2.6	Alegian kokatutako industria guneen inguruko informazio eguneratua eskaini, hutsik dauden pabilioietan enpresak ezartzeko erraztasunak emanaz
E9.2.7	Alegian bertako sortutako produktuen sorrera, merkaturatzea eta kontsumoa bultzatu

LE 10	HEZKUNTZA SISTEMA HOBETZEA, KULTURA ETA KIROLA SUSTATU ETA INDARTZEA ETA EUSKERAREN ERABILERA BERMATZEA
P10.1	Hezkuntza azpiegiturak eta eskaintza hobetzea
E10.1.1	Hezkuntza ekipamenduak eskolaratze beharretara egokitu eta hobetu
P10.2	Kirol eta aisialdirako ekipamendu eta eskaintza erakargarriak sustatzea
E10.2.1	Kirolari lotutako azpiegiturak irisgarriak izan daitezen bermatzea
E10.2.2	Kirol eta aisia eskaintza dibertsifikatzea
E10.2.3	Mendiko aisialdi eskaintza lantzea
E10.2.4	Igerilekua eraikitzeko aukerak aztertu
E10.2.5	Errekara uda garaian jaisteko sarbideren bat egokitu eta ibaiaren kirol-erabilera aztertu
E10.2.6	Belarrezko futbol zelaia eraiki
E10.2.7	Aisialdi eta kirol zein kulturarako gune estali gehiagoren beharra dagoen aztertu eta beharrezko izanez gero, estaltze-lanak burutzea
P10.3	Kultur ekipamendu eta eskaintza erakargarriak sustatzea
E10.3.1	Franconin kultur jardueretarako gune berri bat sortzea
E10.3.2	Kirol, kultur eta gazte taldeak batu eta koordinatuko dituen foroa osatzea
E10.3.3	Kultur izaerako jarduerak areagotzea, herriko taldeei, herrirako antolatu eta burutzen dituzten jarduerak antola ditzaten lagunduz
E10.3.4	Elizako jarduera liturgikoak herriko festa eta ekimen ezberdinetan egiteari mugaren bat jartzea
E10.3.5	Kultur ondarea identifikatu eta zaintzea
P10.4	Euskararen erabilera bermatu
E10.4.1	Gaztelerak hainbat guneetan eduki dezakeen presentziaren aurrean prebentzio neurriak hartzea
E10.4.2	Kanpotik datozen herritarrei euskara ikasteko aukera eta erraztasun gehiago ematea
E10.4.3	Herriko esparru ezberdinetan euskararen erabilera areagotzeko ekimenak abiaraztea
E10.4.4	Euskararen gaia lantzeko koordinazio mahai bat sortzea

3. Plan estrategikoaren Jarraipen plana



AURKIBIDEA

1. Alegiako Plan Estrategikoaren urteko kudeaketa	35
1.1. Plan Estrategikoaren ezaugarriak	35
1.2. Urteko kudeaketa egiteko tresnak	36
1.3. Tokiko Agenda 21en azpi-adierazleen zerrenda	37
1.4. Aalborgeko konpromisoen zerrenda	45
2. Plan Estrategikoaren ekintzen deskribapen fitxak	46
2.1. Ekintzen karakterizazioan erabilitako kontzeptuak	46
2.2. Ekintzen karakterizazioa	49

1. Plan Estrategikoaren urteko kudeaketa:

1.1. Plan Estrategikoaren ezaugarriak

2015eko irailaren 14an Alegiako udalbatzak Alegiako Iraunkortasunerako Plan Estrategikoa onartu zuen (Agenda 21en I. Ekintza Plana). Planak honako egitura du:

- Lerro edo ildo estrategikoak: hurrengo 10 urteetan Plan Estrategikoaren ezarpenarekin lortu nahi diren **helburu orokorrak** dira (**10** dira orotara)

LE 1: Iraunkortasun irizpideetan eta espazioaren hobekuntzan oinarritutako hirigunearen antolamendu eta plangintza sustatzea

LE 2: Alegiako natura-ondarea, paisaia eta bioaniztasuna hobetu eta kontserbatzea eta landa lurra zein natur eremua indartzea

LE 3: Mugikortasun iraunkorra bultzatzea eta garraio publikoa indartzea

LE 4: Ur-kontsumoa murriztea, ur-hornikuntzaren kudeaketa hobetzea eta hondakin-uren saneamendurako sarea osatzea

LE 5: Kontsumo arduratsua bultzatzea, natura baliabideen erabilpen eta kudeaketa eraginkor eta arrazionala burutuz

LE 6: Ingurumen kalitatea hobetu eta gerta daitezkeen arriskuak murriztea

LE 7: Herritarren parte-hartze nahiz sentsibilizazioa eta udal informazioaren eskuragarritasuna hobetzea

LE 8: Ongizatea hobetzea, gizarteratzea laguntzea eta berdintasun balioetan hezte

LE 9: Ekonomia anitza zein iraunkorra zein enpleguaren sustapena

LE 10: Hezkuntza sistema hobetzea, kultura eta kirola sustatu eta indartzea, eta euskararen erabilera bermatzea

- Jarduera programak: lerro estrategiko bakoitza betetzera zuzendutako Planaren helburu zehatzak dira. Alegiako Planak **36 jarduera programa** ditu.
- Ekintzak: jarduera programa bakoitza ekintzez osatuta dago. Ekintzak dira Planaren helburu zehatzak betetzera zuzendutako proiektuak, obrak, informazio- edo sentsibilizaizokanpainak, inbertsioak, etab. **Alegiako Plan Estrategikoak 142 ekintza** barneratzen ditu.

2025 urtera bitartean **Alegiako iraunkortasunerako Plan Estrategikoa aurrera eramateko, beharrezkoa da Planean barneratutako ekintzek gutxieneko definizio bat izatea** eta ondoren, ekintzen garapenez arduratuko diren eragileei dagozkien ekintza sorta banatzea.

1.2. URTEKO KUDEAKETA EGITEKO TRESNAK

Alegiako iraunkortasunerako Plan Estrategikoa udal kudeaketarako tresna bat da. Benetan eraginkorra izango bada, urteko kudeaketa plana beharko du eta hori, besteak beste, Udalsarea 21en kide diren udalei eskainitako baliabideen bidez gauza daiteke:

- 1) Tokiko Agenda 21en Ekintza Planen ebaluazioa eta programazioa
- 2) Tokiko iraunkortasun adierazleen kalkulua
- 3) Tokiko Agenda 21en kalitate globala ezagutzeko programa

Ekintza Planen ebaluazioa eta programazioa:

Ekintza Planen ezarpen maila ezagutzeko foru-programa da eta Gipuzkoa mailan Udalsarea 21en kide diren udalei edo udalaz gaindiko erakundeei zuzentzen zaie. Helburua Ekintza Planaren gauzatzeko mailaren analisia eta balorazioa egitea da, Planaren aurrerapenari buruzko informazioa emanaz. Ebaluazioaren emaitzak oinarritzat hartuz, hurrengo urteari dagozkion jarduerak zehatzak programatzeko aukera izango luke udalak. Jarduera zehatzak programatzeko orduan, kostua izan dezaketen jarduerak udal aurrekontuen eraketan aintzat hartzea komeni da.

Hala ere, praktikan, Gipuzkoako udaletan Ekintza Planen ebaluazio eta programazio lanak azaroa eta martxoa bitartean burutzen dira eta udal horiek, normalean, ez dituzte emaitzak otsaila edo martxorako eskuartean izaten. Beraz, zaila gertatzen da jardueren programazioa eta udal aurrekontuen arteko lanketa aurrera eramatea (hau da, programatutako jarduerak udal aurrekontuetan barneratzea). Momentu horretan, udal gehienetan udal aurrekontuak onartuta egoten dira eta aurreikusi gabeko proiektu edo jarduerak bertan sartzea zaila izaten da. Arazo horri irtenbide bat eman asmoz, 2014 urtean Foru Aldundiak 2 urtera begirako jardueren programazioa egiteko esperientzia pilotua abiarazi zuen, 2. belaunaldiko ekintza planak dituzten zenbait udalekin (esperientzia horretan parte hartu zuten, esaterako, Tolosak eta Adunak).

Gipuzkoako Foru Aldundiak gaur egun eskainitako laguntza-zerbitzuaren egutegiarekin ezinezkoa da Ekintza Planen urteko programazioa udal aurrekontuetan txertatzea. Horregatik, aipatu esperientzia

pilotuak Ekintza Planen kudeaketa-egutegia aldatzea planteatzen du. Hori horrela, behin ebaluazioaren emaitzak eskuartean izanda, hurrengo urtea izango litzateke programatuko litzatekeena. Lanketa honetan parte hartzeko interesa duten udalek Foru Aldundiak prestatutako protokoloa jarraitzeko aukera dute eta kasu honetan ere, laguntza eta aholkularitza zehatza eskaintzen zaie parte-hartzaileei.

Gipuzkoako Foru Aldundiak koordinatutako laguntza-programa honetako informazioa [Gipuzkoako Tokiko Agenda 21eko Behatokiaren web gunean](#) aurki daiteke.

Tokiko iraunkortasun adierazleen kalkulua:

Ekintza Planen ebaluazio eta programazioaren osagarri gisa, Planaren urteko kudeaketa prozesuak adierazleen kalkulua barne hartzen du. Modu horretan, planean ezarritako ekintzak garatzeak udalerrriaren joerak zein neurritan aldatzen laguntzen duen ezagutu daiteke eta ondorioz, hasiera batean proposatutako helburuak (lerro estrategikoak) zein mailatan betetzen ari diren jakin dezakegu.

Informazio osagarria [TA21en jarraipen programa \(US21\)](#)ren web gunean dago eskuragarri.

Tokiko Agenda 21en kalitate globala ezagutzeko programa:

"Tak21" izeneko programaren bidez, [Tokiko Agenda 21en prozesuen oinarritzko 5 ezaugarri](#) (estrategikoa, zeharkakoa, parte hartzailea, operatiboa, jasangarria) neurtzen dira eta horietako bakoitzaren balioa ezagutuz, udalerriko Agenda 21en kalitate globala ezagutu dezakegu. Horretarako, 40 irizpide eta 100 adierazletik gora hartzen dira kontuan, "Tak21"en web bidezko aplikazio informatikoan.

Lortutako emaitzak aztertuz, Agenda 21en udal plangintza hobetzeko balio dezake Udalsarea 21en programa honek. Orain arte, "Tak21" 2 edizio antolatu ditu lhobek (lehena 2011 urtean eta bigarrena, 2013an).

Informazio osagarria: [TAK 21](#)

1.3. TOKIKO AGENDA 21EN AZPI-ADIERAZLEEN ZERRENDA

Adierazle komunak:

1. Eremu publiko irekien eta zerbitzuen erabilgarritasuna udalerrian:

- 5.000 m² baino gehiago dituzten eremu publiko irekiak
- Edozein neurritako eremu publiko irekiak
- Oinarrizko zerbitzuak: osasuna
- Oinarrizko zerbitzuak: elikadura
- Oinarrizko zerbitzuak: garraio publikoa
- Oinarrizko zerbitzuak: birziklatzea
- Oinarrizko zerbitzuak: hezkuntza
- Oinarrizko zerbitzuak: finantza-erakundeak
- Oinarrizko zerbitzuak: kirol guneak
- Oinarrizko zerbitzuak: kultur guneak

2. Lurzoruaren erabilera iraunkorra:

- Lurzoru artifizialetua
- Lurzoru abandonatuak
- Poluituta egon daitezkeen lurzorua
- Lurzoruaren erabilera-intentsitatea
- Bizitzeko lurzorua erabilera-intentsitatea
- Garapen berria: erabili gabeko lurzorua
- Garapen berria: lurzoru abandonatuak eta berreskuratutako lurzoru poluituak
- Eraikinen birgaitzea
- Hiriko lurzorua leheneratzea: abandonatutako lurzorua berreskuratzea
- Hiriko lurzorua leheneratzea: poluitutako lurzorua berreskuratzea
- Udalerriko azalera osoko babes bereziko azalera
- Landatutako eta botatutako baso azalera

3. Tokiko mugikortasuna eta bidaiarien garraioa:

- Eguneroko joan-etorrien batez besteko kopurua biztanleko
- Eguneroko joan-etorrien batez besteko distantzia biztanleko
- Joan-etorrien batez besteko iraupena biztanleko
- Aste barruko joan-etorrien arrazoa eta erregulartasuna: bidaia sistematikoak (lana, ikasketak)
- Aste barruko joan-etorrien arrazoa eta erregulartasuna: bidaia ez sistematikoak
- Erabilitako garraiobidea: oinez
- Erabilitako garraiobidea: bizikletaz
- Erabilitako garraiobidea: motoz
- Erabilitako garraiobidea: automobileraz
- Erabilitako garraiobidea: autobusez
- Erabilitako garraiobidea: trenez edo metroz
- Erabilitako garraiobidea: modu konbinatuetan
- Erabilitako garraiobidea: taxiz

4. Garraio azpiegituretan erabilitako udal-azaleraren banaketa:

- Oinezkoentzako azalera
- Bizikletentzat prestatutako azalera
- Garraio publiko kolektiboek erabiltzeko azalera
- Ibilgailu motordunek erabiltzeko azalera
- Bidegorri edo bizikleta-bideen sarea

5. Ur kontsumoa:

- Etxeko ur-kontsumoa biztanle eta eguneko
- Udalerriaren ur-eskaria, guztira (alta emandako horniketa)
- Etxeko ur-kontsumoa
- Zerbitzuak sektoreko ur-kontsumoa
- Uraren kontsumo industrialak

- Udal administrazioaren ur-kontsumoa
- Uraren nekazaritza-kontsumoa
- Banaketa-sareko galerak, uraren kontsumo osoaren ehuneko gisa

6. Energia-kontsumoa:

- Etxeko gas natural eta elektrizitate-kontsumoa biztanle eta eguneko
- Udalerriaren gas natural eta elektrizitate-kontsumoa, guztira
- Etxeko gas natural eta elektrizitate-kontsumoa
- Zerbitzu-sektorearen gas natural eta elektrizitate-kontsumoa
- Elektrizitatearen eta gas naturalaren kontsumo industrialak
- Udal-administrazioaren gas natural eta elektrizitate-kontsumoa
- Udal-argiztapenean ematen den kontsumo energetikoa
- Energia berriztagarrien ekoizpena

7. Hondakinen sorrera eta kudeaketa:

- Hiri-hondakinen sorrera biztanleko eta eguneko
- Hondakinen kudeaketa: birziklapena eta gaikako bilketa
- Hondakinen kudeaketa: errausketa
- Hondakinen kudeaketa: hondakindegia
- Hondakin arriskutsuen sorrera
- Hondakin arriskutsuen kudeaketa: balorizazioa
- Hondakin arriskutsuen kudeaketa: ezabatzea
- Garbiguneen erabilera
- Hiri hondakinen edukiontziak
- Beira edukiontziak
- Papera jasotzeko edukiontziak
- Ontziak jasotzeko edukiontziak
- Abere-grotzen ekoizpena

8. Uretarako isurketak:

- Ibaien kalitatea. Egoera ekologikoa. 1. estazioa
- Ibaien kalitatea. Egoera ekologikoa. 2. estazioa
- Ibaien kalitatea. Egoera ekologikoa. 3. estazioa
- Estuarioetako uren kalitatea: koefiziente biotikoa (1 estazioa)
- Estuarioetako uren kalitatea: koefiziente biotikoa (2 estazioa)
- Itsasertzeko uren kalitatea: koefiziente biotikoa (1 estazioa)
- Itsasertzeko uren kalitatea: koefiziente biotikoa (2 estazioa)
- Udalerrian hondakin-uren saneamendu-sarera konektatutako etxebizitzak
- Udalerrian hondakin-uren saneamendu-sarera konektatu gabe dauden baina hondakin-urak tratatzeko sistema egokiak dituzten etxebizitzak

9. Ingurumena kudeatzeko sistemak udalerrian:

- Ingurumena kudeatzeko sistemen ezartze maila enpresa handietan eta ETEetan (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, iraunkortasun txostenak)
- Ingurumena kudeatzeko sistemen ezartze maila erakunde publikoetan (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, iraunkortasun txostenak)

10. Pobrezia eta baztertze soziala:

- Pobrezia eta baztertze soziala
- Pobrezia maila. Gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzen dituztenak

11. Langabezia-tasa:

- Langabezia-tasa
- Emakumezkoen langabezia-tasa
- Autokontenzio-tasa

12. Herritarrek udal-komunitatearekin duten gogobetetze-maila:

- Herritarren gogobetetze-maila udalerriekiko, bizitokitzat hartuta

- Herritarren gogobetetze-maila udalerriarekiko, lantokitzat hartuta
- Herritarren gogobetetze-maila etxebizitzaren kalitateari, erabilgarritasunari eta eskuragarritasunari dagokionez
- Herritarren gogobetetze-maila lan aukerekiko
- Herritarren gogobetetze-maila ingurune naturalaren kalitateari dagokionez
- Herritarren gogobetetze-maila eraikitako ingurunearen kalitateari eta kantitateari dagokionez
- Herritarren gogobetetze-maila gizarte eta osasun-zerbitzuen kalitatearekiko
- Herritarren gogobetetze-maila kultura eta aisialdiko zerbitzuen kalitatearekiko
- Herritarren gogobetetze-maila ikastetxeen kalitatearekiko
- Herritarren gogobetetze-maila garraio publikoko zerbitzuen mailarekiko
E 6.4.2 Udal zerbitzuetan Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearekin bat datozen irizpideak sartzen joateko estrategia edo programa zehatz bat ezartzea	<p>2010 urtean, eskualdeko hainbat udalek, Tolosaldea Garatzenen koordinaziopean, "Tolosaldeko EKPBren Estrategia" sinatu zuten. Estrategiaren baitan, udalen eguneroko jarduerarekin zerikusia duten 5 arlo ezberdinetan ingurumen irizpideak barneratzeko helburuak eta jarraitu beharreko pausoak barneratzen ziren, besteak beste.</p> <p>Udalak hainbat irizpide barneraturik ditu jada (paper birziklatuaren erabilera eta garbiketa zerbitzuen esleipen pleguetan irizpideak barneratzea) baina horiez gain, beste gai batzuegan ere irizpideak ezarri ahal ditu.</p>	<p>APAREJADO. TOLOSALDEA GARATZEN (udal- garapen teknikaria)</p> <p>INGURUMEN TEKNIKARIA</p>	MOTZA		UDAL ADMIN. INGURUM KUDEAKET	2	ALTUA		
E 6.4.3 Eraikuntza publikoetan WIFI frekuentziak izan dezakeen eragina aztertu	Wifia herri osora zabaldu nahi da eta beraz honen frekuentzien eragina aztertzea beharrezkoa izango da	APAREJAD.	ERTAINA		UDAL ADMIN. INGURUM KUDEAKET	2	ALTUA	ALTUA	

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGR. EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURA	EZARPEN EPEA	KOSTUA	GAIA	AALBORG-EKO KODEA	LEHENT TEKNIK	HERRIT LEHENT	LEHENT PROPO
P 7.1 Informazioaren eskuragarritasuna hobetzea										
LE 7 HERRITARREN PARTEHARTZE NAHIZ SENTSIBILIZAZIOA SUSTATZEA ETA UDAL INFORMAZIOAREN ESKURAGARRITA- SUNA HOBETZEA	E 7.1.1 Udal web gunean hobekuntzak egitea	<p>Besteak beste, hobekuntza hauek egitea proposatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - "Alegiako Udala" izeneko atalean, udal zerbitzu edo sailen inguruko datuak (telefonoak, etab.) barneratzea - Zenbait azpi-atal eguneratzea (udal aurrekontuei buruzkoa, esaterako) - Eskolako Agenda 21 programari buruzko atal bat sortzea (bertan, besteak beste, ikasturte bakoitzeko buletina eskuragarri egoteko), - Tokiko Agenda 21en atal berezi bat sortzea - Eskura dauden informazio teknologiak erabiliz tramitazio zerbitzua hobetzea: web orriaren elkarreragin maila areagotzeko ereduak aztertzea - Herritarrei web guneko atal ezberdinak nola erabili daitezkeen komunikatu - Herritarrei heltzeko bide berriak aztertzea 	KOMUNIKA TEKNIKARIA	MOTZA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	1	ALTUA	ALTUA	
	E 7.1.2 Herritarren helbide elektronikoak eskatzeko eta udalaren sare sozialetara alegiar gehiago lotzeko kanpainak egitea	Herritar bakoitzaren interesguneak detektatu eta horien arabera igorri informazioa. Buletin elektronikoa erabili daiteke.	KOMUNIKA TEKNIKARIA	MOTZA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	1	ALTUA		

E 7.1.3Udalaren herritarrenganako hurbiltasuna areagotzeko bide berriak aztertzea	Kaleko informazio guneak, panelak, iradokizun-postontziak... izango lirateke aurrera eraman daitezkeen jardueretako batzuk.	KOMUNIKA TEKNIKARIA	MOTZA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	1	ALTUA		
E 7.1.4Herritarra informatu eta sentikortzeko informazio teknologiak erabiltzen jarraitzea, hauek eguneratu eta berriztatuz.	Web orria, mailing-a, sare sozialak izango lirateke baliabide horietako batzuk (Udala horiek aldiro eguneratu eta berritzeaz arduratu beharko litzateke). Aldizkari elektronikoa berreskuratu nahi da.	KOMUNIKA TEKNIKARIA	MOTZA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	1	ALTUA		
E 7.1.5Udal kudeaketan gardentasuna bermatzeko neurriak hartzea	Aurrekontuen inguruko parte hartze ekimenak prozesu iraunkor bihurtu, herritarren erabakimenean sakondu eta parte hartze bideak eta formatuak dibertsifikatzean oinarritzen da.	KOMUNIKA TEKNIKARIA	MOTZA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	1	ALTUA		
E 7.1.6 Herritarren izapide gehienei modu eraginkorragoan erantzungo dien arreta zerbitzuaren sistema osoa birdiseinatzea	Udalak ematen dituen zerbitzu guztien katalogoa sortzea eta herritarren artean zabaltzea.	KOMUNIKA TEKNIKARIA	MOTZA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	1	ALTUA		
E 7.1.7 Alegiako Aldizkaria eta Alegiako Orria komunikazio-euskarriei sostengua ematen jarraitzea	“Tuxpitxu” herri aldizkaria eta Udal orriak maiztasun jakin batekin argitaratzen dira eta horrela jarraitzea da helburua.	KOMUNIKA TEKNIKARIA	MOTZA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	1	ALTUA		
E 7.1.8 Herritarrei web guneko atal ezberdinak nola erabili daitezkeen komunikatu.	Tutorial bat erantsi daiteke web orrian bertan.	KOMUNIKA TEKNIKARIA	MOTZA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	1	ALTUA		

P 7.2 Herritarren partaidetza eta sentsibilizazioa sustatzea									
E 7.2.1 Alegiako iraunkortasunerako I. Plan Estrategikoa onartutakoan, dokumentuaren jarraipena egin eta herritarrek ekarpenak egiteko aukera izan dezaten, parte-hartze organo egonkor bat abian jartzea	Parte-hartze organo edo mekanismo horren bidez, herritarrei komunikatu zaizkie Plan Estrategikoaren urteko betetze maila, urtean egindako jarduera nagusiak, etab. Era berean, egokia litzateke herritarrekin urte batetik besterako jardueren proposamena lantzea, etab.	INGURUMEN TEKNIKARIA KOMUNIKA TEKNIKARIA	MOTZA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	2	ALTUA		
E 7.2.2 Parte-hartze modu edo gune berriak bultzatzen jarraitzea eta prozesu ezberdinetan parte hartzen duten eragileenganako harremana zaintzea	Gehiago definitzeko	KOMUNIKA TEKNIKARIA	MOTZA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	2	ALTUA		
E 7.2.3 Elkarte sarea sustatu eta sendotzeko ekimenak bideratzea eta hauei sostengua ematea	Besteak beste, honako jardueren bidez gauzatuko litzateke ekintza hau: - Herriko elkarte edo taldeek beraien artean harremana izateko aukerak aztertu - Elkarte edo taldeetako kide ez diren herritarrek elkarte edo taldeetan ekimenak antolatzeke moduak bilatu	KOMUNIKA TEKNIKARIA	ERTAINA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	2	ALTUA		
E 7.2.4 Herriko eskolek Eskolako Agenda 21 izeneko hezkuntza	Eskola Agenda 21en Foroa eta sortuko den TA21en jarraipenerako "Foroa"ren arteko elkarlana bultzatu eta EA21eko eragileak	INGURUMEN TEKNIKARIA	MOTZA		KOMUN. ETA HERRI PARTE- HARTZEA	2	ALTUA		

	programan parte hartzen jarrai dezaten, sostengua ematen jarraitzea eta sortutako partaidetza moduak indartzea.	TA21eko Foroan parte hartzeko bideak martxan jarri.	TOLOSALDEA GARATZEN (udal-garapen teknikaria)						
	E 7.2.5 Eskualdeko erakunde eta elkarte publikoek Alegiako garapen iraunkorrean eragin dezaketen ekimen, proiektu, programa eta sentsibilizazio kanpainen gaineko interesa agertzea	Gehiago definitzeko	TOLOSALDEA GARATZEN, TOLOMENDI, TOLOSALD. MANKOM. INGURUMEN TEKNIKARIA	ERTAINA		SENTSIBIL. ETA KONTSUMO IRAUNKORRA	4	ALTUA	
	E 7.2.6 Alegian eragin dezaketen eskualde mailako ekintzetan (planak, programak, etab.) herritarren parte-hartzea sustatzeko bideak irekitzea eta dauden mekanismoak mantendu edo indartzea.	Gehiago definitzeko	TOLOSALDEA GARATZEN, TOLOMENDI, TOLOSALD. MANKOM. INGURUMEN TEKNIKARIA	ERTAINA		SENTSIBIL. ETA KONTSUMO IRAUNKORRA	4	ALTUA	
	E 7.2.7 Auzolana indartzea eta horretarako baliabideak jartzea	Auzolanaren ohikoaz haragoko kontzeptua barneratzea, kontzeptu zabalago horren barruan herritarrek egiten duten auzolana bistaratzea, auzolanerako behar errealak detektatzea eta udalak behar horiek guztiak aseko dituen baliabideak (materiala eta Komunikazio-koordinazioa) jartzea	INGURUMEN TEKNIKARIA KOMUNIK TEKNIKARIA	ERTAINA		KOMUN. ETA HERRI PARTE-HARTZEA	1	ALTUA	

P 7.3 Barne-koordinazioa hobetzea									
<p>E 7.3.1 Udaleko langile teknikoak eta politikoak Plan Estrategikoaren ezarpenean eta urteroko kudeaketan parte hartzea sustatzeko bideak ezartzea</p>	<p>Plan Estrategikoaren ebaluazioaren eta jarraipenaren emaitzak interpretatzeko udal mailan barne saioak egin daitezten sustatzea (ebaluazioan parte hartzen duten teknikariei emaitzak helaraztea, udal web gunean denon eskura jartzea, etab.).</p> <p>Bestetik, barneko koordinazio mekanismoaren eta herritarren parte-hartze mekanismoaren arteko lotura bultzatzea, Plan Estrategikoaren kudeaketarako.</p>	<p>INGURUMEN TEKNIKARIA</p>	<p>MOTZA</p>		<p>UDAL ADMIN. INGURUM. KUDEAKET</p>	<p>2</p>	<p>ERTAINA</p>		
<p>E 7.3.2 Plan Estrategikoaren urteroko kudeaketa eta jarraipena egin ahal izateko tresnak eta prozedura definitzea, eta horiek ezartzea.</p>	<p>Udalsarea 21en kide izatea eskatzea eta horrela, Agenda 21en ekintza planak dituzten udalei zuzendutako kudeaketarako eta jarraipenerako tresnak erabiltzen hastea (ekintza planak ebaluatu eta programatzeko laguntza-programa, adierazleak kalkulatzeko programa, etab.)</p>	<p>INGURUMEN TEKNIKARIA</p>	<p>MOTZA</p>		<p>UDAL ADMIN. INGURUM. KUDEAKET</p>	<p>2</p>	<p>ERTAINA</p>		
<p>E 7.3.3 Iraunkortasunaren arloko jardunbide egokiak udal langile teknikoaren artean zabaltzeko prestakuntza saioak bultzatzea.</p>		<p>INGURUMEN TEKNIKARIA</p>	<p>MOTZA</p>		<p>UDAL ADMIN. INGURUM. KUDEAKET</p>	<p>2</p>	<p>ERTAINA</p>		

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGR. EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURA	EZARPEN EPEA	KOSTUA	GAIA	AALBORG-EKO KODEA	LEHENT TEKNIK	HERRIT LEHENT	LEHENT PROPO
P 8.1 Osasun eta ongizate zerbitzurako ekipamendu orokorrak hornitzea eta herritarren arreta-zerbitzua hobetzea										
LE 8 ONGIZATEA HOBETZEA, GIZARTERATZEA LAGUNTZEA ETA BERDINTASUN BALIOETAN HEZTEA	E 8.1.1 Gizarte-laguntza eta programak indartzea	Udal kompetentziak indartzea litzateke helburua informazioa, orientazioa eta balorazioa) GFAko programak hobetzea beraien esku izanik.	GIZARTE LAGUNTZAIL GFA (ongizate saila)	ERTAINA		ONGIZATEA ETA GIZARTERATZ	7	ALTUA		
	E 8.1.2 Gizarte-laguntzen berrikuspen bat egin eta horien gaineko kontrola gauzatzea	Eusko Jaurlaritzako estatistika zerbitzutik egiten da jarraipena eta beraz bide horretatik egin daiteke jarraipena.	GIZARTE LAGUNTZAIL	ERTAINA		ONGIZATEA ETA GIZARTERATZ	7	ALTUA		
	E 8.1.3 Herritarrei gizarte-laguntzen inguruko informazio egokia eskaintzea eta tramitazioa erraztea	Gizarte zerbitzuen inguruko informazioa zabaltzeko kanpainak egitea	GIZARTE LAGUNTZAIL KOMUNIKAZI TEKNIKARIA	ERTAINA		ONGIZATEA ETA GIZARTERATZ	7	ALTUA		
	E 8.1.4 Tolosaldeko gizarte-zerbitzuekin elkarlana eta koordinazioa bultzatzea	Tolosaldeko hainbat zerbitzuekin eta zentroekin harremana eta koordinazioa bermatzea.	GIZARTE LAGUNTZAIL	ERTAINA		ONGIZATEA ETA GIZARTERATZ	7	ALTUA		
	E 8.1.5 Osasun zerbitzua indartzea eta kalitatea hobetzea	Mediku gehiagoren beharra: pediatria, ...	ALKATETZA	ERTAINA		OSASUNA	7	ALTUA		

E 8.1.6 Osasun etxearen kokapen berri bat baloratzea		ALKATETZA ARKITEKTOA	MOTZA		OSASUNA	7	ALTUA	ALTUA	
E 8.1.7 Eguneko zentro edo/eta zaharren egoitza baten egokiera aztertu		ALKATETZA	ERTAINA		ONGIZATEA ETA GIZARTERATZ	7	ALTUA		
P 8.2 Behar duten herritarrek gizarteratzea eta berdintasuna bermatzea									
E 8.2.1 Elkarbizitzarako formula alternatiboak eskaintzea aztertu	Pisu tutelatuak abian jartzea izan daiteke aukeretako bat.	GIZARTE LAGUNTZAIL ALKATETZA	ERTAINA		ONGIZATEA ETA GIZARTERATZ	9	ALTUA		
E 8.2.2 Etorkinak gizarteratzeko modu berriak aztertu eta ezartzea	GFA-ko "Aniztasun" programa erabiltzen da. Euskara gizarteratzeko elementu gisa erabiltzen da gaur egun euskara ikastaroekin. Beste bide batzuk ere landu daitezke.	GIZARTE LAGUNTZAIL KULTURA TEKNIKARIA	ERTAINA		ONGIZATEA ETA GIZARTERATZ	9	ALTUA		
E 8.2.3 Berdintasunean hezteko kanpainak burutzea	<i>Berdinbidean</i> programarekin bat eginik dado Udala eta hainbat tailer antolatzen dira.	GIZARTE LAGUNTZAIL KULTURA TEKNIKARIA	ERTAINA		BERDINTASUN	9	ALTUA	ALTUA	
P 8.3 Etxebizitza eskubidea bermatzea									
E 8.3.1. Etxebizitzak zaharberritzeko laguntza programak ezartzea		ALKATETZA HIRIGINTZA ARKITEKTOA	MOTZA		ETXEBIZITZA	9	ALTUA		

	E 8.3.2 Alokairurako BOE etxebizitzak eraikitzeke ekimenak sustatzea		EJ ARKITEKTOA	ERTAINA		ETXEBIZITZA	9	ALTUA		
	E 8.3.3 Etxebizitza hutsak merkaturatzea, zerga hobariak ezarriz (BIZIGUNE programa)		EJ ARKITEKTOA	ERTAINA		ETXEBIZITZA	9	ALTUA		
	E 8.3.4 Hutsik dauden lokal komertzialak etxebizitza bihurtzea sustatu		ALKATETZA HIRIGINTZA ARKITEKTOA	MOTZA		ETXEBIZITZA	9	ALTUA		

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGR. EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURA	EZARPEN EPEA	KOSTUA	GAIA	AALBORG-EKO KODEA	LEHENT TEKNIK	HERRIT LEHENT	LEHENT PROPO
P 9.1 Lanean txertatzearen eta lanbide prestakuntzaren sustapena										
LE 9 EKONOMIA ANITZA ETA IRAUNKORRA ZEIN ENPLEGUAREN SUSTAPENA	E 9.1.1 Langabezian dauden pertsonen artean eta herriko enpresen artean enplegua sortzeko aukera ezberdinak osatu, lagundu eta bultzatzeko neurriak hartzea.	<p>Ekintza hau, besteak beste, honako jardueren bidez gara daiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskualdeko enplegu planaren bitartez langabezian dauden pertsonak kontratatzeko laguntzak martxan jarri. - Lan eta gizarteratzeko orientazioa eskaini pertsonen laneratzea bultzatzeko eta herritarren prestakuntza hobetu dadin - Gazte langabetuei nekazaritzan lan egiteko proiektuak martxan jartzea (adibidez, udalak erabiltzen ez duen eta laborantzarako egokia izan daitekeen lursail batean "agroaldea" martxan jartzea) 	TOLOSALDEA GARATZEN (Enpresa eta enplegu arloak)	ERTAINA		LAN MERKATUA	9	ALTUA		
	E 9.1.2 Neurri eta ekimen zehatzak bultzatzea krisiak eragindako gizarte-bazterketa saihesteko	<p>Besteak beste, honako jarduerak gauzatzea proposatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekintzailletza eta lanerako prestakuntza bultzatzea, etorkizunera begira potentziala duten jarduerari begira. - Herriko enpresetan lan egiteko ikastaro zehatzak antolatzea. - Etab. 	TOLOSALDEA GARATZEN (Enpresa eta enplegu arloak)	ERTAINA		LAN MERKATUA	9	ALTUA		

P 9.2 Ekonomi garapenaren sustapena eta egoera txarrean dauden sektoreen berreskurapena										
E 9.2.1. Ekimen esparru berriak sortu eta ekoizpen jarduera zehatzak sortzeko partaidetza foroak antolatzea.	Partaidetza foroak gizarte eragile ezberdinen artean (enpresariak, sindikatuak, langabezien batzordeak, hezitzaileak, etab.) egingo lirateke.	TOLOSALDEA GARATZEN (Enpresa eta ekintzailtza arloak)	ERTAINA			GARAPEN EKONOMIK.	8	ALTUA		
E 9.2.2 Herriko merkataritza indarberritzea, enpresa ezberdinekin partaidetza esparruak sortzea.	<p>Tolosaldeko Merkataritzarako Bulego Teknikoak honako jarduerak burutzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Herriko merkataritza talde batekin bilerak (guztira 22 pertsonekin) antolatzen dira, sektoreari zuzendutako informazioa eta laguntzak zabaltzeko. - Talde honekin berarekin hileroko opari-txekeen zozketa egiten da, bi helburu nagusi izanik: herriko merkataritza sustatu eta dinamizatu, merkataritzak herrian duen garrantziari buruzko hausnarketa bideratuz; bezero eta bizilagunak saritu herriko merkataritzarekiko duten konpromisoa eskertuz, eta fidelizatzeko bide bezala erabiliz. - Sektoreak dituen beharrei, gabeziei etab. erantzuten zaie, aholkularitza eskainiz. 	TOLOSALDEA GARATZEN (Merkataritza arloa)	ERTAINA			GARAPEN EKONOMIK.	8	ALTUA		
E 9.2.3 jarduera turistikoa bultzatzeko ekimenak garatzeko zerbitzu sektoreko enpresen arteko sinergiak bilatzea.	Turismo jasagarriari lotutako jarduerak eta herritarren gozameneko diren baliabideak ezarri, etab.	TOLOSALDEA GARATZEN (Tolosaldea Tour)	ERTAINA			GARAPEN EKONOMIK.	8	ALTUA		

	E 9.2.4 Alegiako landa-lurrari lotutako jarduera ekonomikoak bultzatzen jarraitu, Tolomendirekin elkarlanean		TOLOMENDI	ERTAINA		GARAPEN EKONOMIK.	8	ALTUA		
	E 9.2.5 Enpresak herrian kokatzeko laguntzak edo ekimenak martxan jartzea		TOLOSALDEA GARATZEN (Enpresa arloa)	ERTAINA		GARAPEN EKONOMIK.	8	ALTUA		
	E 9.2.6 Alegian kokatutako industria guneen inguruko informazio eguneratua eskaini, hutsik dauden pabilioietan enpresak ezartzeko erraztasunak emanez		TOLOSALDEA GARATZEN (Enpresa arloa)	ERTAINA		GARAPEN EKONOMIK.	8	ALTUA		
	9.2.7 Alegian bertako sortutako produktuen sorrera, merkaturatzea eta kontsumoa bultzatu	<p>Herrian sortutako produktuen sorrera bultzatzeko neurriak martxan jarri, gai honetan eskumena duten erakundeen arteko elkarlanaren bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Alegiako produktu ezberdinen inguruko azterketa egin eta potentzialtasuna baloratu (1. sektoreari lotutakoak eta baita bestelako produktuak ere -kultura/sormena, artisautza, etab.-) 	Alkatetza Tolomendi (1. sektoreari lotutako produktuei dagokionez) Tolosaldea Garatzen	LUZEA		GARAPEN EKONOMIK.	4 eta 8	ALTUA		

		<ul style="list-style-type: none">- Sortutako produktuak merkaturatzeko aukerak aztertu eta martxan jarri- Herritarrei Alegian bertan sortutako produktu ezberdinen berri eman- Udalak erosi edo kontratatu beharreko zerbitzuetan, Alegian bertan sortutako produktuak aintzat hartzeko baliabideak aztertu eta ezarri (erosketa-pleguetan, etab.)								
--	--	---	--	--	--	--	--	--	--	--

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGR. EKINTZA	DESKRIBAPENA	ARDURA	EZARPEN EPEA	KOSTUA	GAIA	AALBORG-EKO KODEA	LEHENT TEKNIK	HERRIT LEHENT	LEHENT PROPO	
P 10.1 Hezkuntza azpiegiturak eta eskaintza hobetzea											
LE 10 HEZKUNTZA SISTEMA HOBETZEA, KULTURA ETA KIROLA SUSTATU ETA INDARTZEA ETA EUSKERAREN ERABILERA BERMATZEA	E 10.1.1 Hezkuntza ekipamenduak eskolaratze beharretara egokitu eta hobetu	Hezkuntza sailaren baitan dago	APAREJAD EJ (Hezkuntza saila)	ERTAINA		HEZKUNTZA	9	ERTAINA			
	P 10.2 Kirol eta aisialdirako ekipamendu eta eskaintza erakargarriak sustatzea										
	E 10.2.1 Kirolari lotutako azpiegiturak irisgarriak izan daitezen bermatzea		APAREJAD	MOTZA		KULTURA	9	ERTAINA			
	E 10.2.2 Kirol eta aisia eskaintza dibertsifikatzea	Kirola futbol eta pilotara mugatzen da ia guztiz. Honela beste kirol batzuei ere bultzada ematea ondo legoke.	KULTURA TEKNIKARIA	MOTZA		KULTURA	9	ERTAINA			
	E 10.2.3 Mendiko aisialdi eskaintza lantzea	Mendiko aisialdiaren beherakadari aurre egiteko, Udalak gaiari buruzko hausnarketa egitea, Tolosaldea Tourrekin elkarlanean.	INGURUMEN TEKNIKARIA KULTURA TEKNIKARIA TOLOSALDEA GARATZEN (Tolosaldea Tour)	MOTZA		KULTURA	9	ERTAINA			
E 10.2.4 Igerilekua eraikitzeke aukerak aztertu		ALKATETZA ARKITEKTOA	LUZEA		KULTURA	9	BAXUA				

E 10.2.5 Errekara uda garaian jaisteko sarbideren bat egokitu eta ibaiaren kirol-erabilera aztertu		APAREJAD	MOTZA		KULTURA	9	ERTAINA		
E 10.2.6 Belarrezko futbol zelaia eraiki	HAPO barruan aztertzen ari da	HAPO TALDEA ARKITEKTOA	ERTAINA		KULTURA	9	ALTUA	ALTUA	
E 10.2.7 Aisialdi eta kirol zein kulturarako gune estali gehiagoren beharra dagoen aztertu eta beharrezko izanez gero, estaltze-lanak burutzea	HAPO barruan aztertzen ari da	APAREJAD	ERTAINA		KULTURA	9	ERTAINA		
P 10.3 Kultur ekipamendu eta eskaintza erakargarriak sustatzea									
E 10.3.1 Franconin kultur jardueretarako gune berri bat sortzea		ALKATETZA ARKITEKTOA	ERTAINA		KULTURA	9	ERTAINA		
E 10.3.2 Kirol, kultur eta gazte taldeak batu eta koordinatuko dituen foroa osatzea	Haur, nerabe eta gazteentzako sortu den proiektutik hainbat ideia landu dira eta bestean bestek dagoen kultur batzordea, kirol taldeak, gaztetxea eta gaztelekuarekin hobeto koordinatzeko foro baten beharra atzeman da . Kirol mailan ere batzorde baten beharra dago.	KULTUR TEKNIKARIA	ERTAINA		KULTURA	9	ERTAINA		

	E 10.3.3 Kultur izaerako jarduerak areagotzea, herriko taldeei, herrirako antolatu eta burutzen dituzten jarduerak antola ditzaten lagunduz	Lagundu daitezkeen jardueren artean honakoak aipa ditzakegu: antzerkia, kontzertuak, zinema egokitu duen guraso-taldeari hau mantentzeko eta jarduerak antolatzeko laguntzea, etab.	KULTUR TEKNIKARIA	ERTAINA		KULTURA	9	ERTAINA		
	E 10.3.4 Elizako jarduera liturgikoak herriko festa eta ekimen ezberdinetan egiteari mugaren bat jartzea		ALKATETZA	ERTAINA		KULTURA	9	ERTAINA		
	E 10.3.5 Kultur ondarea identifikatu eta zaintzea	Alegiako kultur ondarea inbentariatu, zaindu eta ezagutzera eramateko jardun beharko litzateke.	KULTUR TEKNIKARIA	ERTAINA		KULTURA	9	ERTAINA		
P 10.4 Euskararen erabilera bermatu										
	E 10.4.1 Gaztelerak hainbat guneetan eduki dezakeen presentziaren aurrean prebentzio neurriak hartzea		GIZARTE LAGUNTZAIL KULTURA TEKNIKARIA ALKATETZA	MOTZA		EUSKERA	9	ALTUA		

	E 10.4.2 Kanpotik datozen herritarrei euskara ikasteko aukera eta erraztasun gehiago ematea		GIZARTE LAGUNTZAIL KULTURA TEKNIKARIA	MOTZA		EUSKERA	9	ALTUA		
	E 10.4.3 Herriko esparru ezberdinetan euskararen erabilera areagotzeko ekimenak abiaraztea		GIZARTE LAGUNTZAIL KULTURA TEKNIKARIA	MOTZA		EUSKERA	9	ALTUA		
	E 10.4.4 Euskararen gaia lantzeko koordinazio mahai bat sortzea		KULTURA TEKNIKARIA ALKATETZA GIZARTE LAGUNTZAIL							

4. I Eranskina:

2015eko martxoaren 19ko
herri-batzarraren akta





ALEGIAKO IRAUNKORTASUNERAKO PLAN ESTRATEGIKOA OSATZEKO ALEGINEZ PARTE HARTZE PROZESUAREN AKTA

Bilera antolatu duen organoa	Alegiako Udala, Elkarrekin 21 eta RMArkitektura
Deialdia egin duena	Alegiako Udala eta Elkarrekin 21 lantaldea
Data, tokia eta ordua	2015eko martxoaren 11 Inaxio Begiristain Kultur-etxea 18:30-20:30 bitartean
Telefonia	Alegiako Udala: 943 651087 Elkarrekin 21: 943 492 215 // 943 164 172 RMArkitektura: 943 297 037
Helbide elektronikoa	Elkarrekin 21: elkarrekin21@gmail.com RMArkitektura: mferran@rm-arkitektura.net
Gai zerrenda	<ol style="list-style-type: none">1. Aurkezpena2. HAPOaren eta Tokiko Iraunkortasuneko diagnosiaren adostea3. 2025erako ikuspegia finkatzea4. HAPOren berrikuspena: lurren egokitasuna5. Afarimerienda

Herritarrak

Aitziber Irazustabarrena
Joxepi Agirre
Iñigo Irazustabarrena
Idoia Agirrezabala
Amaia Izagirre
Gema Zubeldia
Marta Iraola (Sutarri Dantza Taldea)
Patxi Renonbales (Intxaurre Futbol Taldea)
Felix Irazustabarrena (Zazpi Astoren Gaietan)
Bertsozale Taldea

Erakundeak

Unai Iraola (Alkatea)
Leire Ugalde (Udal-teknikaria)

Aholkularitza Teknikoa

Aitor Gonzalez (Elkarrekin 21)
Edurne Simón (Elkarrekin 21)
Leire Garmendia (Elkarrekin 21)
Rosa Aurkia (Elkarrekin 21)
Martin Ferran (RMArkitektura)
Zalao las Hayas (RMArkitektura)

Gai zerrendari heldu aurretik, Leirek bileraren dinamika azaldu du. Ondoren Zaloari hitz eman dio berak eta Martinek burutuko duten dinamikaren nondik norakoak aurkezteko.

Saioari heldu aurretik, Leirek aipatu du, parte-hartze prozesuaren amaieran auzolan bat antolatuko dela.

1. Aurkezpena

Leire eta Edurneren artean Iraunkortasunerako Plan Estrategikoaren zirriborroa aurkeztu dute, Lerro Estrategiko, Programa eta Ekintzetan egituratzen dena:

- Lerro Estrategikoak: Ekintza-plana osatzen duten ekintzak egituratu eta tokiko garapen iraunkorra bideratuko duten helburuak dira
- Programak: Lerro estrategikoak aurrera eramateko zehazten diren helburu operatiboak dira. Garatu beharreko kudeaketa eta ekimen arlo nagusietan oinarritzen dira.
- Ekintzak: Programak zehaztu eta garatzen dituen neurri, eginkizun eta proiektuak dira. Kudeaketaren oinarritzko unitateak dira, hauen bete-maila ebaluagarria izan behar da.

Dokumentu horrek 2025erako bilatzen den errealitatera iristea ahalbidetuko duenez, erdietsi nahi den ikuspegia ere definitu beharko dela gaineratu dute. Honela, saioaren bigarren zatian ikuspegiaren definizioa osatzeko lanketa ere egingo dela aurreratu dute.



Iraunkortasunerako Plan Estrategiko honek 10 Lerro edo helburu estrategiko ditu:

- LE1: Iraunkortasun irizpideetan eta espazioaren hobekuntzan oinarritutako hirigunearen antolamendu eta plangintza sustatzea
- LE2: Alegiako natura-ondarea, paisaia eta bioaniztasuna hobetu eta kontserbatzea eta landalurra zein natura eremua indartzea
- LE3: Mugikortasun iraunkorra sustatzea eta garraio publikoa indartzea



- LE4: Ur-kontsumoa murriztea, ur-hornikuntzaren kudeaketa hobetzea eta hondakin-uren saneamendurako sarea osatzea
- LE5: Kontsumo arduratsua bultzatzea, natura-baliabideen erabilpen eta kudeaketa eraginkor eta arrazionala burutuz
- LE6: Ingurumen-kalitatea hobetu eta gerta daitezkeen arriskuak murriztea
- LE7: Herritarren parte-hartze nahiz sentsibilizazioa sustatzea eta udal-informazioaren eskuragarritasuna hobetzea
- LE8: Ongizatea hobetzea, gizarteratzea laguntzea eta berdintasun balioetan hezte
- LE9: Ekonomia anitza eta iraunkorra zein enpleguaren sustapena
- Hezkuntza-sistema hobetzea, kultura eta kirola sustatu eta indartzea, eta euskararen erabilera bermatzea

2. Iraunkortasunerako Plan Estrategikoaren ekintzak adostea

Azalpen hauen ondoren, Leirek eta Edurnek ekarpenak biltzeko eta lehenespena egiteko dinamika azaldu dute. Bertaratutakoak hiru taldetan banatu dira eta bakoitzak lerro ezberdinen inguruan hausnarketa egin du, alde batetik, ekarpenak egiteko eta, bestetik, lerro bakoitzean beharrezkoak ez diren ekintzak eta nabarmentzekoak direnak 3 ekintza identifikatzeko. Osatu diren taldeak honako esparruak aztertu dituzte:

- LURRALDEA: LE 1, LE2 eta LE3 Lerro Estrategikoak
- INGURUMEN ALDERDIAK: LE4, LE5 eta LE6 Lerro Estrategikoak
- GIZARTE ETA EKONOMIA GAIK: LE7, LE8, LE9 eta LE10 Lerro Estrategikoak





Ondoren talde bakoitzaren emaitzak bateratu dira, orokorrean honako iritziak azalduz:

- **Lurraldea:** Neurri batzuk teknikoak dira eta beste batzuk, aldiz, ez. Teknikoak direnak hobeto azaldu beharko liratekeela adierazi da, hizkuntza ulergarriagoan, alegia. Plan Estrategikoa saio hauen ostean berrikusiko dela eta forma aldetik zuzenduko dela adierazi du Leirek. Ez dute lehenespenez lanik egiteko astirik hartu, ekintzaz ekintza egin beharrekoetaz aritu dira eta.
- **Ingurumen alderdiak:** Talde honetan ez dute zirriborroan jasotako ekintzarik kentzea beharrezko ikusten, daudenak ondo daudelako. Ekintza bat gehitzea eskatu dute lehen programan: “Mendiko iturri edo ur jauziak identifikatzea”. Nabarmentzekoak diren ekintzen artean honakoak aipatu dira:
 - o E4.1.1: *Zenbatu gabeko kontsumoak identifikatu, kontrolatu eta galerak murriztu, kontsumoaren eguneroko kontrola eramanez, bereziki gauez, arazoak ematen dituzten sektoreak eta ohikoak ez diren jarduerak antzemateko (obrak, barrakak, ...)*
 - o E4.2.2: *Kaleko iturrietako galerak eta emari iraunkorrak kontrolatzea eta, ahal denetan, emaria erregulatzeko neurriak hartzea: pultsadoreak, ...*
 - o E5.2.2: *Atez ateko gaikako bilketan sortzen diren behar berriei erantzutea eta sistema optimizatzea*
 - o E5.6.4: *Natura ingurune eta ibilbideak, udalerriko kale eta plazak zaborrez ez betetzeko kanpaina martxan jartzea*
 - o E6.3.2: *Industria-jarduerek irekiera lizentziak izapidetu ditzaten laguntza eskaintzea*
 - o E6.4.3 *WIFI frekuentziaren eragina eraikuntza publikoetan aztertzea*
- **Gizarte eta ekonomia gaiak:** Talde honek zenbait ekarpen egin ditu, dagoeneko definitutako ekintzetan barneratzeko. Horretaz gain, P8.1 programan (*Osasun eta ongizate zerbitzuetako ekipamendu orokorrak hornitzea eta herritarren arreta-zerbitzua hobetzea*) ekintza berri bat txertatzea proposatu dute E8.1.7 ekintza bezala jasoko litzatekeena: “*Osasun etxearen birkokatzea*”.
Bestalde, 10.1.3 ekintzari buruz (*Ikastetxeko jolastokia estaltzea*), agian beharrezkoa ez dela aipatu da. Lehenik eta behin, herri mailan estali beharreko eremurik ba ote dagoen eta hauek zentzuk izan beharko liratekeen aztertzea aurretik egin beharreko lana dela adierazi da. Honela, ekintza bera birformulatu egin da, E10.1.3 honela utziaz: Alegian estali beharreko eremurik badagoen aztertzea eta, beharrezko izanez gero, estaltze-lanak burutzea.

Horretaz gain, E10.3.3 ekintzari dagokionez (*Zinema egokitu duten guraso-taldeari hau mantentzeko eta jarduerak antolatzeko laguntzea*), zabaltea eskatu da, soilik zinemaren esparrura mugatu ez dadin. Hortaz, ekintza honela birformulatuko litzateke: *Herriko taldeei, herrirako antolatu eta burutzen dituzten jarduerak antolatzeko laguntza ematea*.

Amaitzeko, Alegiako Aldizkaria eta Orria Plan Estrategikoan txertatzeko eskatu dute.

Azkenik, honakoak dira nabarmendutako alderdiak:

- E7.1.1 ekintzak jasotzen duen jarduera bati eman diote garrantzia gehien: *Herritarrei webguneko atal ezberdinak nola erabili daitezkeen komunikatu eta webgunea bera eguneratua izan*
- E8.1.5: *Osasun zerbitzua indartzea (sendagile gehiagoren beharra: pediatria, ...) eta kalitatea hobetzea*
- E8.4.1: *Berdintasunean hezteko kanpainak burutzea*
- E10.2.7: *Belarrezko futbol zelaia eraikitzea*

3. 2025erako ikupegia finkatzea

Leirek eta Edurnek ikuspegiaren proposamen bat aurkeztu dute, egindako lanketa eta herriko eragile ezberdinekin egindako elkarrizketak oinarri hartuta osatu dena. Bertaratutakoek azaldutako ideiarekin ados agertu dira. Modu honetan, Iraunkortasunerako Plan Estrategikoaren ikuspegia honela zehaztuko litzateke:

Bere inguruneari lotutako Alegia, ekonomikoki dinamikoa, euskalduna eta bizia, elkarbizitza ziurtatzen duena



Jarraian HAPOren lantaldeko Martin eta Zaloak hartu dute hitza.



4. HAPOnen berrikuspena: lurren egokitasuna (RM Arkitektura taldekoek)

Martxoaren 11n arratsaldeko 19:15 inguru hasi ginen Hapoaren berrikuspenerako proposamen tailerlean. Dozena bat lagun bildu egin ziren lehen saio batean **2025 urterako IRAUNKORTASUNERAKO PLAN ESTRATEGIKOAREN lanketarako**, eta honetatik jasotzen ditugu ere gurera horren erabilgarriak diren hitzok eta HAPOnen berrikuspeneraren egitasmoak bildu beharreko nahia eta gogoak liratekeenak:

<< *BERE INGURUNEARI LOTUTAKO ALEGIA, EKONOMIKOKI DINAMIKOA, EUSKALDUNA ETA BIZIA, ELKARBIZITZA ZIURTATZEN DUENA*>>

Ikuspegi honekin, eta diagnostiko partekatuak emandako ororekin eta helburu orokorrekin, proposamen tailerrari ekiten diogu.

Dinamikak bi atal nagusi izan ditu:

- A. Hirigintza erabileretarako lurren egokitasuna. IRIZPIDEAK 30 min
- B. Lurren egokitasunerako BALORAZIOA 15 min

Lehenik azalpen tekniko batzuekin habiatu genuen saioa, eta diagnostiko fasean nabarmendu zen helburu jakin bat azpimarratuz:

“Alegiak, behar berriei ekitekotan, eraikia dagoenetik abiatuko dela, kontsolidazioa eta hiriaren berriztatzea izango delarik lehen jopuntua. Horretan, kasko zaharraren suspertzea, aurri egoeran dauden eraikinei irtenbidea ematea, edota erabilera gutxitua duten eremuen dibertsifikazioa bilatzea izango dira ekin beharreko lehen estrategiak.”

Honetaz gain, herriaren “kolmatazioaz” aritu ginen. Hau da, herrigunean egon arren baina erabilera finkoa edota definitu gabea duten eremuez, inguru urbanoaz alegia, eta eremu hauen ezaugarrietan gogoeta egitea luzatu zen lehen ariketa honetan. Haien ezaugarriak aztertu zitzaten eskatu zen, etxebizitza, industria, ekipamenduak edota espazio publikoak jasotzeko.

Aurretiko lan batean, eremu hauek identifikatu genituen:

1. **Belostegi:** Alegiako iparraldeko sarreratik gertu, Bazurka industrigunearen segidan, eta komunitate baratzak ezarri diren lurren ondoan. Trenbideaz eta N1az mugaturik dago.
2. **Toki Alai:** Feralco industriaren jarraian, Erbeta errepidearen eta Oria ibaiaren arteko lursaia, egun baratzez okupatuta dagoena.
3. **Frankoni:** Mojen eraikina, udalak honen jabegoa eskuratzeko aukera duena. Amezketa ibaiaren ondoan.



4. **Futbol Zelaia:** Egungo futbol zelaiaren alboko lurra, Amezketaren ibaia eta errepidearen artekoa, kirol eremuaren eta Frankoniren artekoa.

5. **Beistin Berri:** Azken bi hauen lerroaren jarraipenean, Amezketaren ibaia, eta Becker industriagunearen sarreraraino iristen dena. Alegiako hilerri zaharra kokatuta zegoen eremua.

Ondoren, uholdetasuna zer den azaltzen da. Honela, URA agentziak erregulatzen duen eta arautzen dituen uholdetasun lerroek aurredefinitu ditugun eremu hauen baldintzak aldatzen dituzte. Eremu hauek beste azpi-eremu batzuetan banatu behar ditugu, 100 urteko uholdetasun lerroaren barruko eremuak erabilera urbanistiko eraikiak galarazten dituela seinalatuz.

Ondorioz, Belostegi, bi azpieroetan banatuko da Beistin Berri eremuaren antzera, eta hauetaz gain, bai toki Alai zein Frankoni uholdetasun eremu honetara gehitu behar ditugu osotasunean.

A. LURREN EGOKITASUNERAKO IRIZPIDEAK

Esan bezala, lehen atal batetan, eremu hauen balorazioa egin aurretik, eremuen erabilgarritasuna edota ezaugarriak azken batean, azaleratu eta eztabaidatuko dira.

Honako informazio orri hau banatu egin da lanketa honetarako:

Zein Eremu lirategi Alegiaren egokienak **etxebizitza** proposamenak egiteko?

Zein eremu ordea, **industria** erabilera ezartzeko?

Zein Eremu lirategi egokienak **espazio publikorako?** (aisialdi eremu, plaza, berdegune, ...)

Zeintzuk egokienak **ekipamendu berriak** ezartzeko?

KONTUTAN HARTZEKO IRIZPIDEAK:

- *Herrigunetik gertutasuna kontutan hartuta, nolakoa dira?*
- *Nolakoak dira lur horiek autoz iristearen aldetik?*
- *Oinez edota bizikletaz modu ziurrean joaterik ba al dago?*
- *Zerbitzurik dute inguruan edota berriak beharko dira?*

Bestalde,

- *Inguru atseginean al daude? Zarata edota kutsadura arrasto berezirik al dute?*
- *Eguzkitsuak al dira edota hozpelak?*
- ...



OHARRAK:

- Eremuak erabilera desberdinetarako egokiak izan daitezke, edota bat baino gehiagorako desegokiak. Prozesuaren momentu honetan ez da ez beharra ezta haien arteko lehenetsia ezartzen.
- Dinamika honetan, eremu horien balorazio orokorra jasoko dugu. Haien arteko eta egungo Alegiaren arteko ezaugarriak azalera eta eztabaidatu nahi dira fase honetan.

LEHEN INPRESIOAK ETA BALORAZIOARI EKARPENAK:

- Uholdetasunerako joera duten eremuak Espazio publikoa ezartzeko erabili daitezke.
- Frankoniko egungo eraikinaren berrerabilpena bideragarri kontsideratzen da eta honen ekipamentu erabilera ere baloratuko da.
- Futbol zelaiaren ondoko eremua, futbol zelaia lekuz aldatuko balitz, hau handitzeko aukera aurreikusten da. Balorazioan beraz, ingurua haren osotasunean baloratuko da.
- Osibar ingurua baloratzea pentsatu da, herri nukleotik urrun egon arren, azalera nabarmena du zenbait iharduera jasotzeko.
- Espazio publiko bezala, berdeguneak, aisialdi eremuak, publikoa dena orokorrean eta kudeaketa publikoko baratzak kontsideratu dira besteak beste.

B. EREMUEN BALORAZIOA

Honako paper bat banatu egingo da, non, 1ak eremuaren egokitasun altua adieraziko duen eta 5ak baxuena. Osibar eremua ere, baloratzeko proposatzen da.

Planoko zenbakia	EREMUA	Etxebizitza	Espazio publikoa	Ekipamentua	Industria
1	Belostegi B1	X		X	X
2	Belostegi B1				
3	Toki Alai	X		X	X
4	Frankoni	X			X
5	Futbol Zelaia				
6	Beistin-Berri B1				
7	Beistin-Berri B2	X		X	X
8	Osibar				

1-Oso Egokia 2- Egokia 3- Erdizka 4- Desegokia 5- Oso desegokia

5. Afarimerienda